

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Donemiliagako kontzejuen gastu arrunt, obra eta jardueretarako udal dirulaguntzen deialdia jasotzen duen 2020ko maiatzaren 13ko erabakiaren laburpena

BDNS(Identif.): 510110

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai:

Deialdiaren xedea

2019an zehar Donemiliagako kontzejuak egin edo sustatutako gastu arruntak, obrak eta jarduerak finantzatzen laguntzea, oinarriko zerbitzu publikoak garatzeko eta herritarren bizi kalitatea hobetzeko helburuaz eginak badira.

Diruz laguntzekoak izango dira udalerrri honetako kontzejuak 2019an zehar egin edo sustatutako gastu arruntak (argiteria, klorazioa...), obrak eta jarduerak.

Honako hauek ez dira diruz lagunduko:

- Beste laguntza edo deialdiaren baten bidez diruz laguntzen diren gastu arruntak, inbertsioak eta jarduera bereziak, salbu eta haien diruz lagundu gabeko zatia.
- Otorduek, elikagaiek... sortutako gastuak.

Onuradunak

Donemiliagako udalerriko kontzejuak.

Oinarri arautzaileak

Donemiliagako Udaltzaren 2020ko maiatzaren 13an egindako bilkuran onetsiak.

Laguntzaren zenbatekoa

Deialdi honetarako gehieneko aurrekontua 167.129,28 euro izango da.

Banaketa irizpideak:

a) Zenbateko finkoa, 12.629,28 euro, zein 789,33 euroko banaketa linealari dagokion, udalerriko hamabost kontzejuen artean banatuko da, kontzejuak osatzen dituzten herriguneetako biztanleak hornitzeko diren ur andelak eta haien hoditeria kontuan izanik.

b) Ur andelen banaketa linealetik geratzen den zenbatekoa, 152.500 euro, hots, ehuneko 60 (91.500 euro), zati berdinetan banatuko da udalerriko hamabost kontzejuen artean. Hori horrela, kontzeju bakoitzak 6.100,00 euro jasoko ditu.

c) Gainerako ehuneko 40, hau da, 61.000,00 euro, proportzioz banatuko da, kontzeju bakoitzak 2020ko urtarrilaren 1ean erroldaturik dituen biztanleen arabera.

d) Aurrekontu aplikazioan aurreikusitako 2.000,00 euroko zenbatekoa auzo konpostajeko jardunbide egokietara bideratuko da.

Jarduera hori abian jarri duela eta horretan lanean diharduela egiaztatzen duen kontzeju bakoitzari gehienez ere 500,00 euroko dirulaguntza emango zaio, eta zenbateko hori kontzejuarentzat kalkulaturako dirulaguntza osoari gehituko zaio.

Eskaerak aurkezteko epea

Herri guztiek eskaerak eta justifikazio agiriak aurkezteko duten epea 2020ko irailaren 7an bukatuko da.

Erdoña, 2020ko ekainaren 11

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO